

PETER MARCUSE

NEW YORKEKO COLUMBIA UNIVERSITY-KO HIRIGINTZA IRAKASLEA

AUTORITARISMOA

«Pentsakeraren kontrola hedabideen eta politikaren homogeneousazioaren bitartez gauzatuko da Estatu Batuetan»

Max Boehnel | NEW YORK

New Yorkeko Columbia University-n Hirigintza irakaslea da Peter Marcuse. *Frankfurteko Eskola* deituriko pentsamendu ildoko fundatzaile izan zen Herbert Marcuseren semeak Harvard, Yale eta Berkeleyn egin zituen ikasketak. Los Angeles hiriko plangintza batzordeko burua izan zen eta mundializazioak hirigintzan izango duen eraginaren inguruko liburuak idatzi ditu. New Yorken izaniko erasook jadanik abian ziren joerak indartuko dituela iragarri dio EGUNKARIA-ri.

■ **World Trade Center munduko eraikinetan handienetakoa zenaren suntsiketaren ondoren, Estatu Batuen 'handinahikeria'-ren bukaera etortzea espero du askok munduan. Horrela ikusten al duzu zuk ere?**

Ez dut uste munduan berezia den *EEBBetako handinahikeria* dagoela. Etxeorratzak ete bestelako eraikin handiak botere eta nazioarteko handitasun nahiaren sinboloak dira mundu osoan. Eraikin garaiagoak bada egun EEBBetatik kanpo, Kuala Lumpurren edo Shanghai. Aldatu egingo da hori, halere, handiaren eta garaiaren nahi hori ez baita ekonomia arrazoiaren edo eraginkortasunaren oinarritzen. Mugarik gabeko gorago eta goragoko joera horrek benetan merezi ote duen galdetzea askoz garrantzitsuagoa izango da.

■ **Berriz eraikiko dute World Trade Center?**


Arazo handia du New York. Lehenago zuen garaierako World Trade Center berri batean inor ez legoke prest alokairu handiak eta orain sentitzen den arriskua jasateko. EEBBetako eraikin garaiena, Chicagoko Sears Tower, halako eraikuntzek dakartzaten arazoan adibide da egun. New Yorkeko erasook arkitektoentzat ere ondorio ekonomiko handiak ekarri dituzte.

■ **Segurtasun neurriak ez dira, halere, epe motzean arinduko?**

Segurtasun nahi hori epe motzeko kontua izango da hirigintzan. Luzean baldintza ekonomikoek erabakiko dute zer eraiki eta zer ez.

■ **Zer nolako itxura hartuko du EEBBetako negozio munduak?**

Joera sendo bat nagusituko da: Hirigunetik alde egin erdiare-



«'Faxistizazio' hitza egokia litzateke egoera azaltzeko»

kin garraibidez ongi loturiko gune berdeetara, hiri inguruetara eta aldirietara. Horrelako tokietan badago bestela eraikitzerik, gehiegi trinkotu gabe eta luze-zabalean. Bulego eraikinak baxuagoak eraikiko dituzte. Eraikin garaien eta etxeorratzen esanahi sinbolikoa galtzen joango da.

■ **Nola eragingo dio deszentralizazioak kultur bizitzari?**

Hiritako elkarbizitza, kultura eta jarduera inguruetara joan-

go dira. Joera hau bazen irailaren 11ren aurretik ere. New York inguruetako aldiriek erdiguneak bezainbeste orkestra sinfoniko dituzte, adibide bat aipatzearen. Broadwayko antzokiek bezeroak galduko dituzte ziur aski. Komertzializazio sare handietatik kanpoko kulturak eta azpi-kulturak, berriz, New Yorken jarraituko dute pil-pilean.

■ **Zer ekarriko die honek New Yorkeko bizitzari, komunitateei eta auzoei?**

ETORKIZUNA

«Egun indarrean den joera bizkortu egingo da: gizartean polarizazio handiagoa, zatiketa eta bereizketa, alegia»

Egun indarrean den joera bizkortu egingo da: gizartean polarizazio handiagoa, zatiketa eta bereizketa, alegia. Behar adina diru daukanak hiriko erdialdetik eta *arriskutsu* omen diren tokietatik alde egingo du. Lurraren salneurria aldatuko da; finantza auzoko etxebizitzaren prezioak merkatu egingo dira. Ez, ordea, langabeentzat edo langile xumeentzat adina. Biztanleen maila ekonomikoaren araberrako auzo bilduma bat bihurtuko da hiria. Epe luzean, demokraziaren aurkakoa bihurtuko da hiria. Epe luzean, demokraziaren aurkakoa bihurtuko da hiria. Epe luzean, demokraziaren aurkakoa bihurtuko da hiria.

■ **Zertan gauzatuko da erreakzio hori?**

Bizitza soziala eta demokratikoa arrisku bizian daude. Hirigintzan eragin zuzena izango du horrek. Negozioetarako eraikinak egiteko diru gehiago izango da eta gutxiago, berriz, gizartearen beharrak asetzeko egituretarako. Polizia indartuko dute eta leku publikoen erabilera murriztuko da. Erasoa izan aurretik Giuliani alkateak New Yorkeko udaletxearen aurrean bilkurak egitea debekatu nahi zuen. Egun, oposizioa ere ez dago horren aurka. Azal iluneko lagunak dagoeneko bizi dute giroaren aldaketa. Autobusetan, trenetan, hegazkinetan beraiek bezalakoak ez diren lagunekin bidaiatzeko beldur da jendea. Irailaren 11tik histeria da hemen jaun eta jabe.

■ **Gauza izango al da EEBBetako sistema politikoa eskuineko bultzadari eusteko?**

Erakundeen, legeen eta Konstituzioaren alde formaletik begirata, ez dago gobernu zuzenki autoritarioa ezartzerik EEBBetan. Ezarri daitekeena, ordea, zera da: Demokraziaren formak gordeko litzateke Estatu autoritarioa. Europako pentsamoldeko *faxistizazio* hitza egokia litzateke egoera azaltzeko. Pentsakeraren kontrola ez da gertatuko EEBBetan atxiloteta masiboen edo kritikoen aurkako indarkeriaren bidez, baizik eta, esaterako, hedabideen eta politikaren homogeneousazioaren bitartez. Gobernu autoritario batek egin dezakeen guztia etor daiteke, gobernu autoritarioa formalki izan gabe. Gizarte kontrola faxismoarenpean baino finago antolatuko litzateke egun, askotan ondorio berak izanda ere.

■ **New Yorken gelditzeko asmoa duzu?**

Zalantzarik gabe.

LAGURAEAN

ESTATU BATUAK

Erasoetan desagertuak 5.219 dira eta kalteak gutxienez 60.000 milioi dolarrekoak

Duela hiru aste New Yorken izaniko erasoaren inguruko behin-behineko bilana zorroztan ari dira agintariak eta aseguru etxeak. Azken datuen arabera, World Trade Centerreko hondamendian desagertuak —agintariak hiltzat eman dituzte jadanik— 5.219 dira, baieztaturiko hildakoak 314 besterik ez badira ere. Honez gain, aseguru etxeek egin dituzten kalkuluaren arabera, baliteke kalte materialak 60.000 milioi dolar baino handiagoak izatea. Hainbat iturriren arabera, kopurua 100.000 milioitara hel daiteke.

ALEMANIA

Herritarren datuak miazteko operazio erraldoia egiten ari da Polizia Federala

Herritarren datuak —gizarte segurantzaren txartelak, errolda, etxeen alokairua, besteak beste— ikertzen ari da Polizia Federala, agintarien arabera, EEBBetako erasotzaileekin loturik Alemanian egon daitezkeen lagunak bilatzeko helburua duen operazioan. Azken hogeitaz urteotan eginiko operazioak zabalean, Mohamed Attak, New Yorkeko pilotu suizidetako batek, Hanburgon osatu zuena bezalako beste taldeak aurkitzea espero duela dio Poliziak.

IRAN

Bere aire espazioa ez bortxatzeko ohartarazi ditu EEBBak Teheranek

Afganistanen aurkako erasoan bere aire espazioa gaintzea ez duela ametituko esan zuen atzo Irango Defentsa ministro Ali Xamjanik. «Gure aire espazioan sartuz gero egin beharrekoa egingo dugu», esan zuen.

JORDANIA

Bushek herrialde arabiarrei ez erasotzeko zin egin duela dio Abdala erregeak

Washingtonera eginiko bidaiaren itzuleran George W. Bush Estatu Batuetako presidentek Armadak herrialde arabiarrei ez ziela erasoko zin egin ziola esan zuen atzo Jordaniako errege Abdala IIak.